

2006KO AZAROAREN 30EKO **OHIKO OSOKO BILKURA**

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta seiko azaroaren hogeita hamarrean, iluntzeko zazpitan, Lazkaoko Udal Osoa biltzen da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Felix Urkola Iriarte Alkatearen lehendakaritzapean, ohiko batzarraldia egin asmoz.

Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Inazio Estensoro Eskisabel, Xanet Barreras Jauregi, Arantxa Zumelaga Agirre, Inazio Barandiaran Aldasoro, Amagoia Naldaiz Mingo, Kepa Goenaga Alikostes, Xabier Arrasate Aierbe, Gorka Lamy Insausti eta Angel Olaso Villalba.

Igor Sarriegi Zumarraga zinegotzia ez da bertaratu.

Aktan adieraziko da Juan Manuel Serna Portugal zinegotzia bertaratzen deneko unea.

Idazkari lanetan Iñaki Eskisabel Zurututzak dihardu.

I.- AURREKO AKTAK.-

Alkateak bilkurari hasera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkezten dira 2006ko irailaren 28an eta urriaren 26an egindako bilkuretako aktak, idatzita dauden moduan onartzen direlarik.

Une honetan Juan Manuel Serna Portugal zinegotzia bertaratzen da.

II.- ZINEGOTZI KARGUA HARTZEARI UKO EGITEA.-

Jarraian Alkateak, Benito Eloy Santibañez Martin Jaunak bere zinegotzi karguari uko eginez Udaletxean aurkeztutako idatziaren berri ematen du. Gehitzen du Benito Eloy Santibañez Martin PSOEko zerrendakoa dela eta Milagros Alvarez Novoa zinegotziak bere kargua utzi eta honen ordezkari izendatutako Alejandro Crespo Gallego J.k zinegotzi kargua hartzeari uko egin ondoren izendatutakoa dela eta honek ere kargua hartzeari uko egin dionez berriro ere beste izendapen bat egin dezan eskatu beharko zaiola Hauteskunde Batzarde Nagusiari.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

III.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren Alkateak azken Osoko Bilkuratik gaur arte emandako Alkatetzako Ebazpenen berri ematen du, ebazpen hauen zenbakizko laburpen baten bidez.

Osoko Bilkura jakinaren gainean gelditzen da.

IV.- SAN PRUDENTZIO ERMITA INGURUKO URBANIZAZIO LANEN 3. ZERTIFIKAZIOA.-

San Prudentzio Ermita inguruko urbanizazio lanen obra zuzendaritza daraman Iñaki Laskurain Gisasola ingineruak (INJELAN, S.L.) lanen hirugarren zertifikazioa luzatu du. Hirugarren zertifikazio honen zenbatekoa EHUN ETA HOGEITA HAMAZAZPI MILA HIRUEHUN ETA LAUROGEITA BAT EURO eta HOGEITA HAMAHIRU ZENTIMOtakoa (137.381,33 €) da. Lan hauek CONSTRUCCIONES DONOSTI, S.A. enpresa ari da burutzen.

Udal teknikariak zertifikazioa aztertu eta bere oneritzia eman dio.

Honen aurrean, Osoko Bilkurak, bertaratutako bere partaide guztien aldeko botuekin, San Prudentzio Ermita inguruko urbanizazio lanen hirugarren zertifikazioa onartzea erabakitzen du.

V.- KREDITU GEHIGARRI BIDEZKO 3 ZBK.DUN KREDITU ALDAKETA.-

Udal honetako Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea irakurri da.

Idazkari-Kontuhartzaileak egindako txostenak dioenez, aipatutako espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaio, eta zehazki Udal Entitateen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Era berean, Ogasun Batzordeak egindako aldeko txostena eta onespen proposamena irakurri dira.

Kreditu Aldaketa honetan barneratzen den kontzeptuetako bat, Euskadi Enparantzako Urbanizazioa urte anitzetako gastu gisa planteatzen da, aurtengo aurrekontuan 30.000 € jartzen direlarik eta datorren urteko aurrekonturako 470.000 € konpromizu kreditua onartzea planteatzen delarik.

Olaso zinegotziak (PP) esaten du berak Euskadi Enparantzaren urbanizazioari buruzko zirriborroa aurkeztu zuela bere garaian eta zirriborro horretan oinarritutako alternatiba bat aurkezteko asmoa duela.

Alkateak erantzuten dio esanez Osoko Bilkura ez dela leku egokia hori eztabaidatzeko.

Serna zinegotziak (PSE) esaten du han barneratzen ziren zenbait kontzeptu direla eta, aurrekontuaren aurka bozketu baldin bazuten ere, aldaketa honetan barneratzen diren inbertsioekin ados daudela eta aldaketa proposamena bidezkoa iruditzen zaiola eta alde bozkatuko duela.

Eztabaidatu ondoren botutara jarri eta bertaratutako partaide guztien aldeko botuekin honako hau

ERABAKI DA

Lehena.- Udal honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion kreditu gehigarrien bidez egin beharreko 3 zbk.dun kreditu aldaketarako espedientea onestea, proposamenaren eta ondoko kapituluko laburpenaren arabera:

KREDITU GEHIKUNTZAK

Kapituluak	Izena	Gehikuntzak
VI	Inbertsio errealak	266.000,- €
GEHIKUNTZAK GUZTIRA		266.000,- €

FINANTZATZEN DITUZTEN BALIABIDEAK

Kapituluak	Izena	Zenbatekoa
IV	<u>Sarrera handiagoak:</u> Transferentzia arruntak	266.000,- €
GEHIKUNTZAK GUZTIRA		266.000,- €

Bigarrena.- Inbertsioetako 432 60106 partidan, Euskadi Enparantzako birrurbanizazioa, kreditu aldaketa honetan 30.000 €rekin aurrikusten dena, datorren urteko aurrekonturako 470.000 €tako konpromezu kreditua onartzea.

Hirugarrena.- Jendaurrean ikusgai jartzea, erreklamazioen ondorioetarako. Erreklamaziorik aurkezten ez bada, erabaki hau behin-betikotzat joko da. Espediente honi Aurrekontu Orokorra onesteko ezarritako gainerako tramiteak eman beharko zaizkio.

VI.- SASIETA MANKOMUNITATEKO ESTATUTUEN ALDAKETA.-

Jarraian Sasieta Mankomunitateko Estatutuen aldaketa onartzea planteatzen da. Estatutu aldaketa honen helburua zera litzateke:

1.- Alde batetik mankomunitatearen xedea aldatzea, oraingo xedeaz gain beste xede batzu ahalbideratu ahal izateko, lehenengo artikuluari honako hau gehitzea planteatzen delarik: " b) Xede osagarri gisa, Udalabatzak hartutako erabakiaren bitartez berariaz eskatzen duten udalerrietan, xede nagusiarekin zerikusirik ez duten beste zerbitzu publiko hauetakoren bat, batzuk edo denak ematea: kaleak eta estoldak garbitzea eta hiri-altzariak mantentzea. Kasu horietan, zerbitzuaren finantzatze osoa eskatzailearen konturakoa izango da eta zerbitzua emateak ez du inolaz ere suposatuko Sasieta Mankomunitateko plantila handitzea."

2.- Bestalde etorkizunean Zaborbilketa zerbitzuaren tasen kobraketa Mankomunitatetik bertatik egin ahal izateko estatutuetan beharrezko aldaketa planteatzen da.

Gaiaren inguruan eztabaida zabala izan ondoren eta gaia gehiago aztertzeari buruzko hainbat iritziren aurrean, guztien oniritziarekin gaia mahai gainean uztea erabakitzen da.

VII.- 2007KO UDAL AURREKONTUA.-

Ondoren 2007 ekitaldiari dagokion aurrekontua aurkezten da bere onarpenera. 2007ko udal aurrekontuak Udala beraren aurrekontua eta Lazkao Lantzen, S.A. udal elkartearen aurrekontua hartzen ditu bere barne.

Alkateak onarpenera aurkeztutako aurrekontuaren azalpena egiten du, inbertsioen partidak banan banan azalduz.

Serna zinegotziak (PSOE) esaten du aurrekontua politikoki zehazten duten hainbat partidekin ez daudela ados eta ondorioz aurrekontuaren aurka bozkatuko duela.

Olaso zinegotziak (PP) esaten du Udalbideri dirulaguntza ematearekin berak instituzioen bikoiztasuna ikusten duela zeren Batzar Nagusiak hor daudela baita ere; Goierri Telebistari dirulaguntza emateari buruz esaten du erakunde pribatu bati dirulaguntza ematea dela eta ez duela hori ondo ikusten eta Ikastolaren kasuan publikoa ala pribatua den jakin nahiko lukeela eta gehitzen du ikastola pribatua baldin bada ikastolaren kantxa ez litzakela diru publikoarekin finantzatu behar.

Alkateak esaten du gainontzeko guztian ados baldin badaude, ezadostasunak aurrekontuaren %0,1ekoa dela, hau da, oso txikia eta beraz poztu egiten dela adostasuna hain handia dela ikusteak.

Serna zinegotziak esaten dio nahi duena kontsentsua iristea baldin bada, gobernu taldeak ere ez lukela hain zenbateko txikia aldatzeko arazorik izan behar.

Alkateak esaten dio bere nahia ez dela beraien iritzia aldatu dezaten eskatzea bai-zik eta errealtatearen konstatazioa egitea.

Guzti honen ondoren, Osoko Bilkurak, aldeko bederatzi botu (EAJ,EA) eta aurkako bi botuz (PSE, PP), honako akordio hauek hartzen ditu:

Lehen a. 2007 urterako udal aurrekontua haserako izaeraz onartzea. Aurrekontu honek Udalaren beraren aurrekontua eta Lazkao Lantzen, S.A. udal elkartearen aurrekontua hartzen ditu eta beraien sarrera eta gastuen kapituluko laburpenak honako hauek dira:

2007KO UDAL BERAREN AURREKONTUA

SARRERAK:

I	KAPITULUA	ZUZENEKO ZERGAK	1.301.989,77 €
II	KAPITULUA	ZEHARKAKO ZERGAK	100.000,00 €
III	KAPITULUA	TASAK ETA BESTELAKO ZERGAK	798.482,79 €
IV	KAPITULUA	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	2.804.334,42 €
V	KAPITULUA	ONDARE-SARRERAK	24.055,93 €

VI	KAPITULUA	INBERTSIO ERREALEN BESTERENGANATZETIK ETA HIRIGINTZAKO JARDUERETATIK ONDORIOZ- TATUTAKO BESTE SARRERA BATZUK	12.829,82 €
VII	KAPITULUA	KAPITAL TRANSFERENTZIAK	700.000,00 €
VIII	KAPITULUA	FINANTZA AKTIBOAK	1.000,00 €
IX	KAPITULUA	FINANTZA PASIBOAK	1.719.334,09 €
SARRERAK GUZTIRA			7.462.026,82 €

GASTUAK:

I	KAPITULUA	PERTSONAL GASTUAK	1.024.604,00 €
II	KAPITULUA	ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN GAST.	2.551.083,79 €
III	KAPITULUA	FINANTZA GASTUAK	20.856,31 €
IV	KAPITULUA	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	520.825,48 €
VI	KAPITULUA	INBERTSIO ERREALAK	3.211.500,00 €
VII	KAPITULUA	KAPITAL TRANSFERENTZIAK	132.157,24 €
VIII	KAPITULUA	FINANTZA AKTIBOAK	1.000,00 €
GASTUAK GUZTIRA			7.462.026,82 €

2007KO LAZKAO LANTZEN, S.A.REN AURREKONTUA

SARRERAK:

VI	KAPITULUA	INBERTSIO ERREALEN BESTERENGANAKETA	1.598.239,00 €
IX	KAPITULUA	FINANTZA PASIBOAK	700.000,00 €
SARRERAK GUZTIRA			2.298.239,00 €

GASTUAK:

II	KAPITULUA	ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN GAST.	158.400,00 €
III	KAPITULUA	FINANTZA GASTUAK	24.088,00 €
VI	KAPITULUA	INBERTSIO ERREALAK	2.115.751,00 €
GASTUAK GUZTIRA			2.298.239,00 €

2007KO UDALAREN AURREKONTU KONTOLIDATUA

SARRERAK:

I	KAPITULUA	ZUZENeko ZERGAK	1.301.989,77 €
II	KAPITULUA	ZEHARKAKO ZERGAK	100.000,00 €

III	KAPITULUA	TASAK ETA BESTELAKO ZERGAK	798.482,79 €
IV	KAPITULUA	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	2.804.334,42 €
V	KAPITULUA	ONDARE-SARRERAK	24.055,93 €
VI	KAPITULUA	INBERTSIO ERREALEN BESTERENGANATZETIK ETA HIRIGINTZAKO JARDUERETATIK ONDORIOZ- TATUTAKO BESTE SARRERA BATZUK	1.611.068,82 €
VII	KAPITULUA	KAPITAL TRANSFERENTZIAK	700.000,00 €
VIII	KAPITULUA	FINANTZA AKTIBOAK	1.000,00 €
IX	KAPITULUA	FINANTZA PASIBOAK	2.419.334,09 €
<u>SARRERAK GUZTIRA</u>			<u>9.760.265,82 €</u>

GASTUAK:

I	KAPITULUA	PERTSONAL GASTUAK	1.024.604,00 €
II	KAPITULUA	ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN GAST.	2.709.483,79 €
III	KAPITULUA	FINANTZA GASTUAK	44.944,31 €
IV	KAPITULUA	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	520.825,48 €
VI	KAPITULUA	INBERTSIO ERREALAK	5.327.251,00 €
VII	KAPITULUA	KAPITAL-TRANSFERENTZIAK	132.157,24 €
VIII	KAPITULUA	FINANTZA-AKTIBOAK	1.000,00 €
<u>GASTUAK GUZTIRA</u>			<u>9.760.265,82 €</u>

Bigarrena.- Aurrekontu hau jendaurrean erakustea hamabost lanegunetako denboraldian, erreklamazio ondorioetarako.

Hirugarrena.- Jendaurreko denboraldian erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz, aurrekontu hau behin betikotzat onartua joko litzateke espreski hartutako akordio berri baten beharrik gabe.

VIII.- 2007KO PLANTILA ORGANIKOA ETA LANPOSTUEN ZERRENDIA.-

Jarraian, eta aurrekontuari lotutako dokumentu gisa, Osoko Bilkurara aurkezten dira bere onarpenerako 2007rako Udal Langileen Plantilla Organikoa eta Lanpostuen Zerrenda, bere espedientean aurkitzen direnak.

2006ko plantilla eta lanpostuen zerrendarekiko dauden aldaketa bakarrak honako hauek dira: alde batetik gizarte zerbitzuetako teknikariaren postua betetzen duenaren egoera orain beteta agertzen da eta lehen praktiketako funtzionari gisa; idazkari-kontuhartzaile postuaren Taldea orain A/B da eta lehen berriz B zen. Azken aldaketa hau Idazkaritza-Kontuhartzailetza Azpieskalako funtzionarien taldeari buruz 834/2003 Errege Dekretuak onartutako aldaketaren ondoriozkoa da eta gai honen inguruan EUDELe Herri Administrazioen Ministeritzan egindako kontsulta baten aurrean eta honek erantzundako txostenean jasotzen denari jarraiki egiten da.

Osoko Bilkurak, bertaratutako guztien aldeko botuekin, 2007rako Lazkaoko Udala-
ren plantila organikoa eta lanpostuen zerrenda, bere espedientean daudenak, onartu egi-
ten ditu.

IX.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jotzen du,
iluntzeko bederatzi terdiak direnean nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen
dudalarik.